

Narratiba eta osasuna: Nola sortu osasuna eraikitzen duten istorioak?



Narratibaren indarra ezagutu, praktika klinikoa zein osasun publikoa eraldatzeko, eta zaintzen dutenen eta zaintzak jasotzen dituztenen arteko harremana sakontzeko.

Eka. 23 - Eka. 24 2026

Kod. 005-26

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2026

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 23 - Eka. 24 2026

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

Uda Ikastaro honek osasuna eraikitzen duten istorioen muinera bidaia proposatzen du. Narratibaren bidez, kontakizunek gaixotasuna ulertzeko moduan, zaintzan eta prebentzioan nola eragiten duten aztertuko da. Bi egunetan zehar, teoria eta praktika uztartuko da medikuntza narratiboa, kontakizunaren etika eta idazkera gogoetatsuen botere eraldatzailea ezagutzeko. Literatura aliatutzat hartuta eta parte-hartze aktiboa sustatuz, kontaktzen diren istorioak ulertzen ikasiko da, diskurtso gizatiarragoak, enpatikoagoak eta emantzipatzaileagoak sortzen, eta profesionalen, pazienteen eta gizartearen arteko komunikazioa hobetzeko gai izaten.

Ikastaro hau ikaskuntzarako espazio bizia da, non teoria eta praktika elkarrekin lotzen dira esperientzia esanguratsuak sortzeko. Uste da narratiba ez dela soilik hitzetik irakasten, baizik eta elkarrekintzatik eta hausnarketa partekatutik. Horregatik, erabiliko den metodologiak hiru oinarri ditu: parte-hartze aktiboa, idazketa gogoetatsua eta diziplinarteko elkarrikketa.

Jardunaldi bakoitzean hitzaldiak, dinamikak eta eztabaidarako zein elkarriketarako espazioak konbinatuko dira, ideiak eta esperientziak kontrastatzeko aukera emango duten galderak eta iruzkinak egin ahal izateko. Hitzaldietan funtsezko kontzeptuak azalduko dira, hala nola medikuntza narratiboa, kontakizunaren etika eta istorioek osasun publikoaren eta ikerketa kualitatiboaren eremuetan duten eragina. Baita ere literatura istorioen iturri gisa, eta praktika klinikorako ezagutza duen balioa garatuko da.

Ikastaroaren erdigunea idazketa gogoetatsuko tailerrak izango dira, non parte-hartzaileek beraien istorioak arakatu eta ikuspegi humanista batetik berridazten ikasiko duten. Introspekiorea eta talde-trukera gonbidatuko duten ariketa errazak, eskuragarriak eta sortzaileak proposatuko dira.

Literaturak ere bere lekua izango du: zaintzaren eta gaixotasunaren esperientzia argitzen duten obren zatiak aztertuko dira, fikzioak errealitatea ulertzen nola lagun dezakeen azalerazteko.

Gainera, parte-hartze horizontala sustatuko da, diskurtso paternalistak saihestuz eta konfiantza-giroa sustatuz. Talde-dinamikek eta irakurketa partekatuek ahots bakoitzak bere espazioa aurkitzea ahalbidetuko dute, ikaskuntza kolektiboa sortuz. Azken batean, metodologiaren helburua nagusia parte-hartzaile bakoitzak, ezagutzak eskuratzeaz gain, esperientzia aberasgarri bat bizitzea da, bai bere praktika profesionalerako, bai pertsonalerako.

Helburuak

Narratibaren garrantzia ulertzea praktika klinikoan, osasun publikoan eta ikerketan.

Kontakizunek erabaki mediko eta sozialetan nola eragiten duten aztertzea.

Idazketa gogoetatsuen trebetasunak garatzea profesional-paziente komunikazioa hobetzeko.

Literatura tresna gisa aztertzea, zaintza eta gaixotasunaren esperientzia ulertzeko.

Diskurtso emantzipatzaileak eta osasuna sustatzen dutenak bultzatzea.

Lankidetzak



Programa

2026-06-23

09:00 - 09:10 Erregistroa

09:10 - 09:40 Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena

Aurkezpena: Narratiba eta osasuna: Nola sortu osasuna sortzen duten istorioak?

Mikel Baza Bueno | Osakidetza - Famili eta komunitateen medikua-Médico de familia y comunidadesHizkuntza: euskara

09:40 - 10:35 “La importancia de las historias y cómo influyen en la práctica clínica: Medicina narrativa y método clínico centrado en la persona “

Mikel Baza Bueno | Osakidetza - Famili eta komunitateen medikua- Médico de familia y comunidadesHizkuntza: español

10:35 - 11:30 “Narrativas en disputa en salud pública: desde la responsabilidad individual al cuidado colectivo. “

Amaia Bacigalupe De la Hera | EHU - Profesora de SociologíaHizkuntza: español

11:30 - 12:00 Atsedena

12:00 - 13:30 “Dinámica participativa - “Las historias de nuestra salud”. “

13:30 - 15:30 Atsedena

15:30 - 16:00 “Isiltasunak kontakizunean duen garrantzia“

Mikel Baza Bueno | Osakidetza - Famili eta komunitateen medikua- Médico de familia y comunidadesHizkuntza: euskara

16:00 - 17:20 “Dinámica participativa: Narrativas, identidad y poder en salud. “

Katixa Agirre Agirre Miguelez | EHU - Profesora de SociologíaHizkuntza: español
Amaia Bacigalupe De la Hera | EHU - Profesora de SociologíaHizkuntza: español

17:20 - 17:30 Sintesia

2026-06-24

09:05 - 10:00 “¿Cómo se construyen los saberes? Biomedicina, evidencias e investigación cualitativa“

Yolanda González Rábago | EHU - Profesora de comunicación y escritoraHizkuntza: español

10:00 - 11:00 “La medicina narrativa y sus aplicaciones: profesional-paciente, profesional-consigo mismo, profesional-colegas, profesional-sociedad“

Dolor, cuidado y verdad de las mujeres: la creación artística como narrativa de resistencia

Miren Iza Cia | EHU - Profesora de sociologíaHizkuntza: español

11:00 - 11:30

Atsedena

11:30 - 12:00

“ Kontatu eta existitu: narrazioa funtsezko beharizan gisa.”

Katixa Agirre Agirre Miguelez | EHU - Soziologia irakaslea- Profesora de SociologíaHizkuntza: euskara

12:00 - 13:40

“Taller práctico - Escribir y narrar para comprender la realidad que habitat-mos”

Katixa Agirre Agirre Miguelez | EHU - Soziologia irakaslea- Profesora de SociologíaHizkuntza: español

Miren Iza Cia | EHU - Profesora de SociologíaHizkuntza: español

13:40 - 13:50

Sintesia

13:50 - 14:00

Itxiera

Mikel Baza Bueno | Osakidetza - Médico de familiaHizkuntza: español

Zuzendaritza



Mikel Baza Bueno

Osakidetza. EHU-ko irakasle elkartua

Bilbon jaioa, bertan hazi eta bizi naiz. Medikuntzan lizentziatu nintzen (EHU) eta Familia eta Komunitate Medikuntzan espezializatu nintzen gero. Gaur egun, Zeberion (Bizkaia) egiten dut lan mediku gisa, eta Arrigorriagako Lehen Mailako Arretako unitateburua naiz (Barrualde-Galdakao ESI-a. Osakidetza). EHUko Medikuntza graduko irakasle elkartua. OPIK ikerketa-taldearen eta Osatzen-ekin elkarlanean. Ez dut farmazia-industriaren edo elikagaien industriaren informaziorik, prestakuntzarik edo ordainsaririk jasotzen. Lehen Mailako Arretaren defendatzailetzat dut nire burua, eta errespetuzko osasun-arretan sinesten dut, pertsonengan zentratuta, eta ez hainbeste gaixotasunetan. Kontatzen dizkiguten istorioekiko interes berezia dut, ezagutza, ikerketa, irakaskuntza eta osasunaren sustapena partekatze eta sortzeko modu gisa.

Irakasleak



Katixa Agirre Agirre Miguelez

UPV/EHU

Euskal idazlea eta EHUko Ikus-entzunezko Komunikazioko irakaslea. Bi ipuin-liburu argitaratu ditu: Sua Falta Zaigu (Elkar, 2007) eta Habitat (Elkar, 2009), baita haur eta gazteentzako zenbait istorio ere, Amaia Lapitzen abentura-saga nabarmentzen delarik. 2015ean bere lehen nobela argitaratu zuen, Atertu arte Itxaron, hainbat hizkuntzataraz itzulia eta irakurleek emandako 111 Akademia saria jaso zuena. 2018an argitaratu zen Amek ez dute, dagoeneko 12 hizkuntzatan argitaratua eta Mar Coll zinemagileak zinemara egokitua. 2022an Berriz zentauro argitaratu zen, etorkizuneko Paris batean kokatutako fikzio espekulatiboa. Ipuin-antologia eta zinemari buruzko saiakeretan parte hartu du, eta Eneagrama elkarrizketa kulturalen bideopodcasts zuzentzen eta aurkezten du. Bere laugarren nobela argitaratu berri du, Barne zerbitzuak, gerra zibilaren osteko espioitza-istorio bat.



Amaia Bacigalupe De la Hera

EHU

Licenciada en Sociología (UPV/EHU), Máster en Políticas Públicas y Sociales (UPF) y Doctora en Salud Pública (UAB). En la actualidad es Profesora Titular del Departamento de Sociología y Trabajo Social de la UPV/EHU. Con anterioridad, ha trabajado en el Servicio de Estudios e Investigación Sanitaria del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y en la Unidad de Investigación de Atención Primaria de Bizkaia (Osakidetza). Sus líneas de investigación prioritarias son el estudio de la influencia de la estratificación y la desigualdad social en la salud y en la atención sanitaria, con un especial foco sobre las desigualdades de género en la salud y los sesgos de género en la atención sanitaria. Es IP del Grupo de Investigación en Determinantes Sociales de la Salud y Cambio Demográfico-OPIK. Actualmente es también directora del Departamento de Sociología y Trabajo Social.



Mikel Baza Bueno

Bilbon jaioa, bertan hazi eta bizi naiz. Medikuntza lizentziatu nintzen (EHU) eta Familia eta Komunitate Medikuntza espezializatu nintzen gero. Gaur egun, Zeberion (Bizkaia) egiten dut lan mediku gisa, eta Arrigorriagako Lehen Mailako Arretako unitateburua naiz (Barrualde-Galdakao ESI-a. Osakidetza). EHUko Medikuntza gradu irakasle elkartua. OPIK ikerketa-taldearen eta Osatzen-ekin elkarlanean. Ez dut farmazia-industriaren edo elikagaien industriaren informaziorik, prestakuntzarik edo ordainsaririk jasotzen. Lehen Mailako Arretaren defendatzailetzat dut nire burua, eta errespetuzko osasun-arretan sinesten dut, pertsonengan zentratuta, eta ez hainbeste gaixotasunetan. Kontatzen dizkiguten istorioekiko interes berezia dut, ezagutza, ikerketa, irakaskuntza eta osasunaren sustapena partekatze eta sortzeko modu gisa.



Yolanda González Rábago

EHU

Unibertsitateko irakasle titularra Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Soziologia eta Gizarte Lan Sailean. Soziologian doktorea, Migrazioetan masterra eta Osasun Publikoko diploma. Osasunaren Determinatzaile Sozialei eta Aldaketa Demografikoari buruzko Ikerketa Taldeko (OPIK) kidea da. Bere ikerketa ildo nagusiak osasunaren soziologiaren epidemiologia soziala eta osasun publikoaren barruan kokatzen dira, bereziki osasun desberdintasun sozialen azterketan. Azken urteotan, haren ikerketa-ildo nagusia arrazakeria-prozesuek osasun-arloko desberdintasunetan eta osasun-sistamarako sarbidean duten eragina aztertzea izan da, bai eta populazio ez-hegemonikoen osasunari eta osasun-determinatzaileei buruzko ikusmoldeak aztertzea ere, metodologia kualitatibo batetik eta ikuspegi intersektionaletik.



Miren Iza Cia

Miren Iza. Medikuntza doktorea, psikiatrian espezialista, hogeitun urtetan SERMASeko hainbat arlotan lan egin du. Musikagilea eta sortzailea ere bada, Tulsa musika-proiektua abian du 2007tik. Izen honekin zazpi diska argitaratu ditu, azkena, Amadora izenekoa, 2023. urtean argitaratu zen, eta, horri esker, Egungo Musiken sari Nazionala irabazi zuen. Bertan, emakumeen minari heltzen dio, kulturalki familia-eta gizarte-zaintzaile gisa hartutako posizioari lotuta. Zinemarako soinu-banden konposizioan eta produkzioan lan egin du. Zilarrezko Biznaga lortu zuen 2015ean, Jonas Truebaren Los exiliados románticos filmaren soinu-bandagatik. Gaur egun bere hurrengo diskoa lanean ari da .

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2026-06-23 ARTE
Orokorra	87,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	74,00 EUR
Matrikula exentzia	61,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Ikastaroak guztiontzat	74,00 EUR
Donostia Kultura	74,00 EUR
Elkar	74,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide	74,00 EUR
Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa	22,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa